eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Informatika Ingeniaritzako Gradua

Konputagailuen Ingeniaritza

Gradu Amaierako Proiektua

CoAP liburutegien konparaketa praktiko eta teorikoa

Egilea: *Markel Iglesias*

Tutorea: *Amaya Ibarra*

Enpresako tutorea: *Aitor Urbieta*

informatika fakultatea
facultad de informática

2017

Abstract

Over the last years, the Internet of Things (IoT) has grown in protocols, implementation and use cases. Regarding to communication protocols, the Constrained Application Protocol (CoAP) has started to gain some momentum as it follows the REST paradigm, it is very lightweight and it can be embedded in constrained device and networks. There are several available open source libraries that implement CoAP, that target different platforms and written in different programming languages. Each of these libraries has its own features and requirements and therefore, it is very important to select the most appropiate one for each proyect or system. The aim of the work carried out in this proyect has been to help developers choose the library that suits better each system. To do that, a preliminary research has been done on libraries, they have been theoretically analyzed and finally some "demos"have been developed. After analyzing the features and extensions each library supports, the "demos"have been executed to measure some important parameters such as latency and memory and CPU consumption, in a concrete hardware. With this analysis and measurements, the goal of helping developers select the correct library for their system has been targeted. Finally, a paper has been written and submitted to an international conference.

Resumen

Los últimos años, el Internet de las Cosas o Internet of Things (IoT) ha crecido en protocolos, implementaciones y casos de uso. Entre los protocolos de comunicación, Constrained Application Protocol (CoAP) ha empezado a ganar fuerza ya que sigue el paradigma REST, es muy ligero y se puede incluir en dispositivos y redes que tengan ciertas limitaciones. Hay varias librerías de código abierto que implementan CoAP para diferentes plataformas y lenguajes de programación. Cada librería tiene sus características y requisitos y es muy importante elegir la implementación adecuada para cada aplicación o sistema. El trabajo realizado en este proyecto se ha enfocado a cumplir ese objetivo, facilitar a los desarrolladores la elección de librerías para cada sistema particular. Para ello, se ha hecho un estudio previo de las librerías existentes, se han analizado teóricamente y finalmente se han desarrollado unas "demos". Después de analizar las características y extensiones que soporta cada librería, se han ejecutado las "demos"para tomar medidas de parámetros importantes como la latencia y el consumo de memoria y CPU, en un hardware concreto. Con este análisis y con estas medidas, el objetivo de facilitar la elección de la mejor librería para cada aplicación se ha cumplido. Además, se ha escrito un artículo científico que se ha enviado para su publicación en una conferencia internacional.

Laburpena

Azken urteotan, Gauzen Internet edo Internet of Things (IoT) zabaltzen joan da eta hainbat protokolo, inplementazio eta erabilpen kasu garatu dira. Komunikazio protokoloen artean, Contrained Application Protocol (CoAP) nabarmentzen hasi da, REST paradigma jarraitzen duelako, oso arina delako eta gailu eta sare oso mugatuetan sar daitekeelako. CoAP inplementatzen duten hainbat liburutegi libre daude eskuragarri, plataforma eta programazio lengoaia ezberdinetan. Horietako liburutegi bakoitzak bere ezaugarri eta eskakizunak dauzka eta oso garrantzitsua da aplikazio edo sistema bakoitzean liburutegi egokia aukeratzea. Proiektu honetan aurrera atera den lana zentzu honetan joan da. Hori dela eta, liburutegi ezberdinak bilatu, teorikoki aztertu eta bukatzeko "demo"batzuk prestatu dira, neurri ezberdinak hartzeko. Horrela, liburutegi bakoitzak eskaintzen dituen ezaugarriak eta gehigarriak aztertzen dira lehenengo eta gero, demoak martxan jarri eta latentzia eta memoria eta CPU erabilera neurtu dira, hardware konkretu batean. Era honetan, garatzaileei beraien sisteman inplementatzeko liburutegi egokiena aukeratzen laguntzea izanik lanaren helburu nagusia, artikulu zientifiko bat idatzi eta nazioarteko konferentzia batera bidali da.

Akronimoak

ACK	Acknowledgement
AMQP	Advanced Message Queuing Protocol
CoAP	Constrained Application Protocol
CoRE	Constrained RESTful Environments
CPU	Central Processing Unit
DDS	Data Distribution Service
DTLS	Datagram Transport Layer Security
HTTP	Hypertext Transfer Protocol
IANA	Internet Assigned Numbers Authority
IETF	The Internet Engineering Task Force
IoT	Internet of Things
IP	Internet Protocol
JMS	Java Message Service
MQTT	MQ Telemetry Transport
MQTT-SN	MQTT For Sensor Networks
QoS	Quality of Service
RAM	Random Access Memory
RD	Resource Directory
REST	Representational State Transfer
ROM	Read Only Memory
TCP	Transmission Control Protocol
TLS	Transport Layer Security
UDP	User Datagram Protocol
URI	Uniform Resource Identifier
XMPP	Extensible Messaging and Presence Protocol

Gaien aurkibidea

Irudien aurkibidea

Taulen aurkibidea

1. KAPITULUA

Sarrera

Dokumentu hau Informatika Ingeneritzako Graduko bukaerako proiektuaren memoria da, IK4-Ikerlan Ikerketa Teknologikoen Zentruan burutu dena.

1.1 CoAP protokoloa

Gauzen Internet edo Internet of Things (IoT), geroz eta garatuago dago eta gertuago dago gizartean garrantzi handia edukiko duen momentua. Eguneroko objektuak konektatzen dituen sarea da IoT, bai beraien artean eta baita ohizko internet-era ere bai. Eguneroko objektuan esaterakoan, ez dira gailu elektronikoak bakarrik (telefono mugikorrak, pultsera azkarrak...) edo barnean elektronika konplexua daukatenak (autoak edo etxetresna handiak), baizik eta beste edozein produktu, esate baterako janaria, arropa, materialak edo piezak.

Gauzen sare hori sortzeko, gaur egun ohizkoak diren interneteko protokoloak ez dira egokiak, energia eta konputazio kontsumo handia baitaukate, beraz hainbat protokolo berri agertu dira azken urteotan, arazo horri aurre egiteko. Horietako protokolo bat da Constrained Application Protocol (CoAP), garatzaileek HTTP-n ikasitakoan oinarrituta eta antzeko modeloa jarraituz, gailu xumeagoetan sartzeko diseinatu dena.

1.2 Dokumentuaren antolakuntza

Dokumentu hau sarrera kapitulu honekin hasten da. Ondoren, 2. eta 3. kapituluetan, proiektua nola antolatu eta planifikatu den deskribatzen da eta gero aurretik gai honen inguruan egindako lana aztertu da ere. 4. kapituluan CoAP deskribatzen da, bere espezifikazioa eta baita gehigarri ezberdinak, garatzaileentzat libre erabiltzeko dauden inplementazio batzuk aurkeztearekin batera. Hurrengo kapituluan inplementazio hauen arteko konparaketa teorikoa egiten da, inplementazio bakoitzaren ezaugarriak analiatuz. Behin analisi teorikoa eginda, analisi praktikoa egin da 6. eta 7 kapituluetan. 6. experimentua deskribatzen da eta 7. beraien emaitzak. Bukatzeko, proiektuaren ondorioak azaltzen dira, bai ondorio teknikoak eta baita planifikazioaren ingurukoak, gai honen inguruan lan egiten jarraitzeko ideia batzukekin batera.

2. KAPITULUA

Proiektuaren Helburuak eta Planifikazioa

Gradu bukaerako proiektu honen helburua CoAP inplementazio ezberdinak konparatzea da. Horretarako, hasieran hainbat inplementazio modu teorikoan aztertzen dira, haien ezaugarriak deskribatuz eta non izan daitekeen interesgarriagoa inplementazio bakoitza erabiltzea. Ondoren, Raspberry Pi plataforma batean martxan jarri dira inplementazio horiek eta hainbat neurri hartu dira, konparaketa praktiko bat ere edukitzeko. Analisi eta konparaketa bai praktiko eta teorikoari esker, sistema diseinatzaileei beraien lana erraztea da lan honen helburua, behin CoAP aukeratu eta gero, inplementazio egokiena hautatzen lagunduta.

2.1 Azpiatazen zerrenda

Aurreko helburuak aurrera eramateko, hainbat ataza definitu dira. Lehenik liburutegiak ezagutu eta teorikoki analizatuko dira. Ondoren, inplementazioak martxan jarri eta demoak prestatuko dira. Alde praktikoarekin bukatzeko, froga ezberdinak egin eta hainbat neurri hartuko dira. Proiektua bukatzeko memoria hau idazteaz gain artikulu zientifiko bat ere idatziko da.

1. CoAP liburutegien gaur egungo egoeraren analisia egin.
2. CoAP-ek beste protokolo arin batzuekiko eskeintzen dituen abantailak eta desabantailak identifikatu.

3. CoAP liburutegien konparaketa teorikoa egin.
4. CoAP liburutegi ezberdinekin demoak prestatu.
5. CoAP liburutegien arteko elkarreragingarritasun aztertu.
6. CoAP liburutegien analisi praktikoa egin.
7. Egindako lanetik artikulu zientifiko bat prestatu.
8. Memoria idatzi

2.2 Planifikazioa

Planifikazioarekin jarraituz, atal honetan atazak eta egutegia definitzen dira.

2.2.1 Denboraren estimazioa

Denborari dagokionez 2.1 taulan azaltzen da ataza eta azpiataza bakointzarentzako planifikatutako denbora.

Ataza	**Denbora**
Guztira	300
Prozesu taktikoak	15
K – Kudeaketa	13
K1 – Bilerak	8
K2 – Artxiboaren kudeaketa	5
P – Planifikazioa	2
P1 – PHDa egin	2
Prozesu operatiboak	285
G – Garapena	185
G1 – Aurrekariak analizatu	50
G2 – Liburutegiak detektatu eta probatu	65
G2.1 - Detektatu	15
G2.2 – Teorikoki analizatu	25
G2.3 – Probatu	25
G2 – Demoak prestatu	50
G3 – Neurketak egin	20
G3.1 – Interoperabilitatea probatu	5
G3.2 – Latentziak neurtu	5
G3.3 – RAM eta CPU-a neurtu	5
G3.4 – ROM kontsumoa neurtu	5
D – Dokumentazioa	100
D1 – Artikulua idatzi	50
D2 – Memoria idatzi	50

2.1 Taula: Atazen denbora

2.2.2 Denbora plangintza: GANTT Diagrama

2.1 irudian Gantt diagrama erakusten da, ataza bakoitza noiz hasi eta noiz bukatzen den adierazten duena.

2.1 Irudia: Gantt diagrama

2.3 Arriskuak

Proiektua aurrera eramaterakoan hainbat arazo sor daitzezke planifikazioa izorratu ditzaketenak. Gauzak horrela izanda, ondorengo arriksuak detektatu eta definitu dira:

A01-Lanaren atzerapena.

Deskribapena: Lana arrazoi desberdinen ondorioz, finkatu den epera iristeko zailtasuna edukitzea.
Larritasun-maila: ALTUA. Epeak ez direlako errespetatuko.
Eragina: Finkatu diren epeak ez errespetatzea.
Aurrezaintza-plana: Disziplinatua izatea eta dena egin beharreko epean egitea.
Kontingentzia-plana: Epea baino lehen beste epe bat jarri nire buruari eta ordurako bukatuta eduki.

A02-Ezagutza falta.

Deskribapena: Proiektuan erabiltzen diren programak edo teknologia erabiltzeko arazoak.
Larritasun-maila: ERTAINA. Lana geldotzea.
Eragina: Lana geldotzen da.
Aurrezaintza-plana: Lana egiteko teknologia jakinda, hasi baino lehen jakinaren gainean jarri eta ikasi.
Kontigentzia-plana: Lehen bait lehen egunean jarri jakin beharrekoarekin.

A03- Bat-bateko lan karga

Deskribapena: Beste alde batetik lana jasotzea.
Larritasun-maila: Aldakorra, eskaera kopuru eta epeen arabera.
Eragina: Lanaren atzerapena eta lana pilatzea.
Aurrezaintza-plana: Lanak planifikazioan estimatutakoa baino lehenago bukatzea.
Kontingentzia-plana: Lan gehiago egitea eta estresatu beharrean lanak banan banan egiten joatea.

A04- Datuen galera

Deskribapena: Emangarri zehatz baten, batzuen zein artxibo osoa desagertzea.
Larritasun-maila: Aldakorra, galdurako bolumenaren arabera.

Eragina: Lana errepikatu behar izatea.
Aurrezaintza-plana: Artxiboa interneten izateaz gain segurtasun kopiak egitea.
Kontingentzia-plana: Ordu estrak dedikatu galdutako lana berregiten, unekoa alde batera utzi gabe.

3. KAPITULUA

IoT eta CoAP, Aurrekariak

IoT eguneroko objektu edo gauza fisikoak interkonektatzen dituen sarea da, zirkuitu elektronikoak, sentsoreak, softwarea eta sare gaitasuna txertatu zaizkienak, datuak elkarbanatu eta jasotzea ahalbideratzen duena. Era honetan, hurrunetik informazioa jaso edo objektuak kontrola daitezke dagoeneko existitzen den sare azpiegitura bat erabiliz. Horrela izanda, adituek espero dute 2020-rako 50 mila miloi gailu egongo direla internetera konektatua [Evans, 2011], [Chase, 2013]. Ziurrenik gehiegi izango dira, 2015-an jada aurreikuspenen atzetik baitzihoan konektatutako gailuen zenbakia [Evans, 2011], baina egia da egunero gailu berriak konektatzen direla internetera.

Gailu hauek ez dira ordenagailu arruntak bezain indartsuak eta energia kontsumo baxuagua beharko dute, bateriekin edo pilekin funtzionatuko baitute. Hori dela eta, IoT-ra zuzendatutako protokolo berriak agertzen joan dira eta horietako bat lan honetan aurkezten den CoAP da.

Badaude ikerketak non, CoAP-en eraginkortasuna aztertzen den, inplementazio ezberdinak eta hauen ezaugarrien deskribapena. Hasieran, CoAP-en estandarizazioa oraindik burutu gabe zegoenean, inplementazio batzuen analisia egin zen artikulu batzuetan: [Lerche et al., 2012] eta [Villaverde et al., 2012]. Bigarrenean, CoAP teorikoki analizatzen da, CoAP-en definizioaren lehen zirriborroa aurkeztu eta denbora gutxira, orduko inplementazio batzuekin batera. Zeuden inplementazioak aurkezten ditu eta beste artikuluetatik ateratako analisiekin ondorio batzuk ateratzen dira bertan, baina analisi propiorik egin gabe. [Lerche et al., 2012]-k, ETSI CoAP Plugtest [ETSI, 2012]-eko emaitzak aurkezten dituzte. Bertan erabilitako liburutegiak aurkezten dira eta zein test pasatu zuten, baina ez dute eraginkortasunik az-

tertzen. Bi artikuluek aurkezten dute inplementazioen zerrenda bat, baina idatzi zirenetik egoera aldatu egin da, CoAP-en estandarizazio prozesua bukatu da eta inplementazio berriak agertu eta zahar batzuk desagertu egin dira. CoAP-en eraginkortasunaren inguruan informazioa aurkitzeko bilaketa parametroak zabaldu behar dira, beste protokolo batzuekiko konparaketa edo hardware ezberdinaren gainean egindako probak kontutan edukitzeko.

CoAP-en liburutegi bakar bat analizatzen dutenen artean, [Ludovici et al., 2013]-ek beraien inplementazio propioa aurkezten dute, TinyOS plataformarako: TinyCoAP. Eraginkortasuna konparatzen dute HTTP/TCP, HTTP/UDP eta TinyOS-ren inplementazio originalaren, CoAPBlib-en artean. TelosB motak erabiltzen dituzte horretarako eta latentzia, memoria eta energia kontsumoa neurtuz. [Kruger and Hancke, 2014]-k benchmark bat azaltzen dute, CoAP-en inplementazio berdina Raspberry Pi, BeagleBone eta BeagleBone Black batean martxan jarrita. 4 eta 10 klaseko SD txartelak erabiltzen dituzte eta GUI-a martxan, itzalita eta desinstalatuta egiten dituzte neurketak. Latentzia, banda zabalera eta erabilitako CPU eta memoria dira neurtutako parametroak, guztiak loopback interfazean. Horrez gain, latentzia ere konparatzen dute TelosB mota batean dagoen zerbitzari batean eta BeagleBone bat gateway bezala erabilita.

Analizatutako protokoloak zabalduz gero, CoAP eta HTTP-k antzeko estruktura dute, nahiz eta inguru ezberdinetara orientatuta egon. [Colitti et al., 2011]-ek Tmote Sky eta Zolertia Z1 motekin lan egin dute, erantzun denbora eta energia kontsumoa neurtzeko. [Kuladinithi et al., 2011]-k aldiz, beraien CoAP inplementazioa erakusten dute, libcoap, eta Contiki eta TinyOS-ra portak egin ondoren HTTP-rekiko konparatzen dute. Azkenik, [Elmangoush et al., 2015]-k CoAP, HTTP, MQTT eta AMQP azaltzen dituzte, baina lehenengo biekin bakarrik egiten dute lan. OpenMTC plataformaren gainean banda zabalera eta erantzun denbora neurtuz.

MQTT da beste IoT-rako protokolo oso ezagun bat eta [De Caro et al., 2013]-k hainbat parametro neurtzen dituzte MQTT eta CoAP-ekin. Latentzia, banda zabalera eta paketeen galera ratioa neurtzen dute zerbitzu kalitate eta sare galera konfigurazio ezberdinetan, Smartphone batean inplemetatuta. [Thangavel et al., 2014]-k, bestalde, middleware komun bat aurkezten dute, MQTT eta CoAP-entzako eta latentzia eta banda zabalera neurtu.

Beste hainbat protokolo ere erabiltzen dira IoT-rako. Horren arira, [Talaminos-Barroso et al., 2016]-k eHealth herramienta bat inplementatu dute, DDS, MQTT, CoAP, JMS, AMQP eta XMPP erabiltzeko aukera ematen duena. CPU eta memoria erabilera, banda zabalera eta

mezuen latentzia eta jitter-a neurtzen dituzte. [Mun et al., 2016]-k, aldiz CoAP, MQTT, MQTT-SN, WebSockets eta TCP aukeratu dituzte analizatzeko. Aplikazio garatzaileei protokoloa aukeratzen laguntzea da haien helburua eta horretarako energia eraginkortasuna eta memoria eta CPU erabilera neurtzen dituzte. Bukatzeko, [Chen and Kunz, 2016]-k MQTT, CoAP, DDS eta UDP-ren gainetik doan protokolo propio bat analizatzen dute. Sare emuladore bat erabiltzen dute sareko hainbat parametro konfiguratu eta banda zabalera, latentzia eta pakete galera neurtzen dituzte.

Aurreko parrafoetan azaldu bezala, CoAP-en eraginkortasuna aurretik ere konparatu da, beste hainbat protokolorekiko. Inplementazio konkretu batzuen eraginkortasuna ere analizatu da, hardware ezberdinetan. Hala eta guztiz ere, egindako lan guztia CoAP-en definizioaren hasierako zirriborroak inplementatzen dituzten liburutegietan oinarrituta dago, beraz ez dago eguneratuta. Gainera, gaitasunak eta interoperabilitatea konparatzen dituzte eta ez dute eraginkortasuna aztertzen. Ondorioz, lan honen helburu nagusietako bat da hutsune hori betetzea, gaur egungo konparaketa bat egin eta teorikoki eta praktikoki aztertu, era honetan, sistema diseinatzaileei behar duten inplementazioa aukeratzen lagunduz.

4. KAPITULUA

Constrained Application Protocol (CoAP)

IoT-n indar gehien hartzen ari diren protokoloak dira CoAP eta MQTT. Nahiz eta MQTT helduagoa den, ikusi da erabilpen kasu batzuetarako ez dela egokia, beraz, CoAP erabiltzen hasi dira garatzaileak. Biek arkitektura ezberdina daukate, beraz, bakoitzak badauka bere lekua IoT-ko ekosistema heterogeneoan. MQTT-k argitaratzaile/harpide eredua jarraitzen du eta TCP-ren gainean doa TCP pilan eta CoAP-ek bezero/zerbitzari eredua UDP-ren gainean. Kontrol aplikazioetarako eta 1-1 komunikazioetarako egokiagoa da CoAP, eta beraz, garrantzitsua da horrelako aplikazio bat garatzerako orduan, behin CoAP erabiliko dela erabakitakoan, inplementazio egokia aukeratzea.

Constrained Application Protocol (CoAP) [Shelby et al., 2014] gailu elektroniko txikietan erabiltzeko diseinatu den software protokolo bat da, internet bidez komunikatzeko gaitzen duena. Oso energia gutxi kontsumitzen duten gailuetara orientatuta dago batez ere, adibidez sentsoreak, etengailuak, balbulak eta antzeko osagaietarako, kontrolatu edo gainbegiratuak izateko beharra daukatenak. HTTP-ren diseinua jarraituz, REST paradigma jarraitzen du eta oso erraz bihurtu daiteke HTTP proxy simpleen bidez egungo sareetan integrazioa errazteko, baina beste ezaugarri batzuk gehitzen dizkio, hala nola, multicast, kontsumo baxua eta arintasuna. Hiru ezaugarri hauek oso garrantzitsuak dira IoT eta Machine-to-Machine komunikazioetarako, gailu hauek sistema txikietan txertatuta egoten baitira eta memoria eta energia mugatuak izaten baitituzte, eraginkortasuna oso garrantzitsua delarik. CoAP UDP edo antzeko protokolo bat onartzen duten gailu gehienetan erabil daiteke.

The Internet Engineering Task Force (IETF)-ko Constrained Restful Environments (Co-

RE) lantaldea izan da CoAP-en estandarizazio lana egin duena eta horrela aurkeztu zuten 2014-an RFC 7252 kodearekin. RFC horretan oinarria dago eta bera osatzeko hainbat gehigarri estandarizazio prozesuko etapa ezberdinetan daude.

4.1 Ezaugarriak

CoRE lantaldeak ondorengo ezaugarriak kontutan edukita diseinatu du CoAP

- Analisi eta kontsumoaren konplexutasuna.
- URI eta content-type onartu beharra.
- Ezagunak diren CoAP zerbitzuek dauzkaten baliabideen aurkikuntza onartu beharra.
- Baliabideetara erraz harpidetzea, push notifikazioak jaso ahal izateko.
- Katxeatu sinplea, max-age-n oinarrituta.

HTTP-ra mapeoa definituta dago, proxy-ak erraz sortzea ahalbidetuz, CoAP baliabideetara HTTP bidez sarbidea eman daitekeelarik. Behin CoAP definituta, protokolo libre ugari daude konexioen pila osorako, baita inguru eta gailu mugatuetarako. CoAP erabiltzean, protokoloen pila ezberdina izaten da interneteko aplikazio orokorretarako, 4.1 taulan ikus daitekeen bezala

Maila	**IoT**	**Aplikazio orokorrak**
Aplikazioa	CoAP, CoAPs	HTTP, HTTPs
Garraioaren segurtasuna	DTLS	TLS
Garraioa	UDP	TCP
Sarea	IPv6	IPv6, IPv4
	6LoWPAN	
Lotura	IEEE 802.15.4	IEEE 802.3, 802.11

4.1 Taula: Protokoloen pila

4.1.1 Zerbitzuaren kalitatea

Zerbitzuaren kalitateak definitzen du ea konprobatzen den mezua hartu den edo ez, hau da, mezua jasotzen ez denean zer egin behar den. UDP-k ez du inongo konprobaketarik egiten, ez du inongo segurtasunik ematen ea mezua iritsi den ala ez. Hori dela eta, CoAP da konprobaketa hori egiten duena. Horretarako, bi zerbitzu kalitate eskeintzen ditu, mezu Confirmable-ak eta Non-Confirmable-ak. Lehenengoaren kasuan, mezua bidali eta gero ACK baten zain geratuko da aplikazioa, eta heltzen ez bada berriro bidaliko du mezua. Bigarren kasuan, mezua bidali eta aplikazioak aurrera jarraituko du, ez du inongo konprobaketarik egingo.

4.1.2 Segurtasuna

Komunikazioan segurtasuna gehitu bada, interneteko aplikazio orokorretan normalean TLS erabiltzen da. CoAP-en kasuan hau ez da posible, TLS-k mezuan helduko direla, eta gainera ordenean egingo dutela behar du, eta UDP-k ez dauka ezaugarri hau. Hori dela eta, Datagram Trasnport Layer Security (DTLS) diseinatu da, UDP-ren gainean TLS-ren teknikak aplikatuz. Hainbat protokolo bakar batean biltzen ditu:

- Handshake protokoloa: Gakoen elkarbanatzea eta konexio iraunkor baten konfigurazioa nola egin definitzen du.
- Record protokoloa: Komunikazio segurua definitzen du.
- Alert protokoloa: Erroreen notifikazioa definitzen du.
- ChangeCipherSpec protokoloa: Mezu bakar bat dauka, logikoki handshake prozesuaren barruan dago, baina protokolo ezberdin bat bezala hartzen da.

Hala ere, DTLS-k hainbat ezaugarri gehitzen dizkio komunikazioari eta honek UDP-k TCP-rekiko dauzkan abantaila batzuk galaraztea ekar dezake, hala nola azkartasuna eta konexioa zabalik eduki behar ez izatea.

Segurtasun mailari dagokionez, NoSec edo segurtasunik gabekoaz gain, beste hiru segurtasun maila definitzen dira:

- Aurretik partekatutako gakoak: Gako simetrikoak ematen zaizkio bai bezero eta baita zerbitzariari, beraz, kriptografia simetrikoan oinarritzen da.

- Gako publikodun ziurtagiri gordinak: Kriptografia asimetrikoko algoritmoak erabiltzen dira, baina ziurtagirietan gakoak bakarrik daude.
- X.509 ziurtagiriak: Aurreko kasuaren antzekoa da, gakoak gordetzeko eta elkarbanatzeko era aldatzen da, X.509 formatua erabiltzen dute ziurtagiri hauek.

4.2 CoAP-en Espezifikazioa

4.2.1 RFC 7252

RFC 7252 da erreferentzia iraunkorra. 2013ko Uztailaren 11n onartu zen textitdraft-ietf-core-coap-18 izenarekin eta 2014ko Ekainaren 26an RFC 7252 publikatu zen. Atzerapenaren arrazoia segurtasun espezifikazio batzuen publikazio prozesua bukatzea izan zen.

4.2.2 IANA erregistroa

CoAP hedagarria izateko diseinatua izan da. Hori dela eta, hainbat erregistro definitzen dira protokoloaren bilakaerari laguntzeko. Erantzun kodeak (adibidez 4.04 “Not found”) eta edukiaren formatua identifikatzeko kodeak (50 application/json-rako) IANA erregistroan jasotzen dira. Era honetan espezifikazioak guztiontzat ikusgarri geratzen da eta bermatzen da kodeak ez direla elkar zapalduko.

4.2.3 Mezuen formatua

CoAP-ek bi mezu mota erabiltzen ditu, eskaerak eta erantzunak. Horretarako, formatu bitar sinple bat erabiltzen du goiburuetarako. Oinarrizko goiburuari aukera ezberdinak gehitu ahal zaizkio, formatu eraginkor batekin (Luzeera-Balioa).

4.1 irudian ikus daitezke CoAP mezu batean dagoen zati bakoitza.

Goiburuaren atzetik datorren edozein byte, mezuaren edukia izango da. Mezuaren luzeera datagramaren luzeeran inplizituki doa. IETF-ren gomendioa datagrama bakar batean mezu osoa sartzea da, mezuen fragmentazioa ekiditeko.

- Lehenengo 2 bit-ak (Ver) CoAP-en bertsioari dagozkio.



4.1 Irudia: CoAP mezu baten goiburua

- 2 bit-ek (T) mezu mota definitzen dute. Confirmable, Non-Confirmable, ACK edo Reset.
- 4 bit (TKL) tokenaren luzeerarako. Token-a ez denez beharrezkoa lau 0-ko izan daitezke.
- 8 biteko kodea: Aurrerago azaltzen dira.
- 16 bit: mezuaren ID-rako.

Hauen atzetik datozen goiburuko bit-ak hautazkoak dira, goiburua eta edukia banatzen duten eta 1-ra jarrita dauden zortzi bitak izan ezik. Azken hau mezuan edukia baldin badago beharrezkoa da, bestela ez da jartzen. Era honetan, CoAP mezu baten tamaina minimoa 32 bit edo 4 bytekoa da.

Mezuen kodeak hauen motaren menpe daude. X.YY formatuan erakusten dira, non X-ak klasea adierazten duen eta Y-ek mota konkretuagoa. Eskaera batean, X-ek 0 balioa edukiko du eta erantzunak datuen jasoera ondo joan den edo ez edukiko du kontutan. 4.2, 4.3 eta 4.4 tauletan ageri dira kode posibleak, bai eskaera eta baita erantzunetarako ere.

Kodea	Izena
0.00	EMPTY
0.01	GET
0.02	POST
0.03	PUT
0.04	DELETE

4.2 Taula: Eskaeren kodeak

Klasea	Deskribapena
2.xx	Ondo
4.xx	Bezeroaren errorea
5.xx	Zerbitzariaren errorea

4.3 Taula: Erantzunen kodeak

2.YY motako erantzunek eskaera ondo exekutatu dela adierazten dute, 4.YY motakoek bezeroaren eskaeran erroreren bat dagoela eta 5.YY zerbitzariak arazoren bat duela.

Kodea	Deskribapena
2.01 (65)	Created
2.02 (66)	Deleted
2.03 (67)	Valid
2.04 (68)	Changed
2.05 (69)	Content
4.00 (128)	Bad Request
4.01 (129)	Unauthorized
4.02 (130)	Bad Option
4.03 (131)	Forbidden
4.04 (132)	Not Found
4.05 (133)	Method Not Allowed
4.06 (134)	Not Acceptable
4.12 (140)	Precondition Failed
4.13 (141)	Request Entity Too Large
4.15 (143)	Unsupported Content-Format
5.00 (160)	Internal Server Error
5.01 (161)	Not Implemented
5.02 (162)	Bad Gateway
5.03 (163)	Service Unavailable
5.04 (164)	Gateway Timeout
5.05 (165)	Proxying Not Supported

4.4 Taula: Erantzunen kodeak

Edukia edo payload barruan doazen balioek formatu ezberdinak eduki ditzakete eta 4.5 taulan erakusten dira.

Media type	Id.
text/plain;charset=utf-8	0
application/link-format	40
application/xml	41
application/octet-stream	42
application/exi	47
application/json	50
application/cbor	60

4.5 Taula: Edukien formatua

4.2.4 Gehigarriak

IETF-k gehigarri batzuk proposatzen ditu CoAP-en ezaugarriak zabaltzeko. Hauetako batzuek CoAP-en ezaugarriak erabiltzea errazten dute eta besteek zabaldu, aplikazio konplexuagoak ahalbidetuz.

- **Constrained RESTful Environments (CoRE) Link Format** [Shelby, 2012]: Gehigarri honekin, IETF-k zerbitzari mugatuen linken formatua definitzen du: baliabideak, atributuak eta linken arteko harremanak.
- **Block-Wise Transfers in the Constrained Application Protocol (CoAP)** [Bormann and Shelby, 2 eduki handia duten mezuak bidaltzeko definitu da gehigarri hau, IP fragmentazioa ekiditeko. Hau gerta daiteke firmware eguneraketetan, adibidez.
- **CoRE Resource Directory** [Shelby et al., 2016]: IETF-k Resource Directory izeneko entitate bat proposatzen du, beste CoAP zerbitzari batzuetako baliabideei buruzko informazioa gordetzen duena. Era honetan, zerbitzari horiek energia aurrezten dute eta zerbitzariak bilatzea erraz daiteke.
- **Observing Resources in the Constrained Application Protocol (CoAP)** [Hartke, 2015]: Gehigarri honekin, CoAP zerbitzariak gai dira harpidetuta dauden bezeroei push notifikazioak bidaltzeko, beste argitaratzaile/harpide eredua jarraitzen duten protokoloen antzera, adibidez MQTT edo XMPP.

- **Group Communication for the Constrained Application Protocol (CoAP)** [Rahman and Dijk, 2014]: multicast inguru batean CoAP nola erabili definitzen du gehigarri honek.

- **CoAP Simple Congestion Control/Advanced CoCoA** [Bormann et al., 2015]: CoAP-en espezifikazioak kongestioa kontrolatzeko metodo sinpleak proposatzen ditu, gehigarri honekin metodo konplexuak ahalbidetzen dira.

4.2.5 Inplementazioak

CoAP inplementazio libre ugari daude eskuragarri, ezaugarri ezberdinak dauzkatenak eta plataforma ezberdinetara orientatutakoak. Lan honen helburua inplementazio horietako batzuk konparatzea da, plataforma berean. Lengoaia eta exekuzio ingurune ezberdinetara orientatutako liburutegiak aukeratu dira, eta ondokoak izan dira aukeratutakoak:

- **libcoap** [Bergmann, 2016] C-ko liburutegi bat da, gailu txertatu txikietatik POSIX SE duten sistema handietara doazen gailuetara bideratutakoa. RFC 7275 ofiziala jarraitzen du, bezero eta zerbitzari aldea inplementatzeko laguntza eskeintzen du eta hainbat gehigarri ere baditu: Observe mode, Block-wise transfer eta Resource Directory. Kodea adibide oso konpletuekin dago argitaratuta eta DTLS segurtasuna OpenSSL edo tinyDTLS-rekin gehitzeko erraztasunak emateko dago diseinatuta.

- **smcp** [Quattlebaum, 2016] ere C-n inplementatuta dago eta libcoap-en antzera, gailu txiki eta handietan sartzeko pentsatuta dago. Sistema eragilerik gabeko sentsore txikietatik, GNU/Linux daukaten gailu handietara, sistema txertatuak barne. Bai bezero eta bai zerbitzariak inplementatzeko laguntzak ematen ditu eta RFC 7252-a jarraitzen du. Gehigarriei dagokienez, Observe mode eta Multicast taldeak onartzen ditu. Komando lerroko bezero bat ematen du, *smcpctl*, eta egun experimentala den DTLS adar bat ere bai.

- **microcoap** [1248, 2016] mikrokontrolagailu txikietan sartzeko C liburutegia bat da. POSIX eta Arduino-rako adibideak eskaintzen ditu kodearekin batera, eta RFC 7252 jarraitzen du, baina ez du osorik inplementatzen. Zerbitzariaren aldea bakarrik eskaintzen du eta hau ere mugatuta dago, GET, PUT eta POST eskaeretara, eta erantzunak ACK-ren barnean bakarrik bueltatzen ditu. Gainera ez du birtransmisiorik egiten.

- **FreeCoAP** [Cullen, 2016] da lan honetan aztertutako azken C liburutegia. GNU/Linux gailuentzako diseinatuta dago, GnuTLS erabiltzen baitu segurtasunerako. RFC 7252 ofiziala jarraitzen du.

- **Californium** [The Eclipse Foundation, 2014] Java liburutegi bat da, oso konpletua baina ezin da gailu mugatuetan sartu. Backend sistemetarako dago orientatuta, JVM erabiliz eta bezero eta zerbitzariak inplementatzeko laguntza ematen du. RFC 7252-z gain, Observe mode, Block-wise transfer eta Resource Directory dauzka eta DTLS segurtasuna Scandium proiektuarekin gehitu dakioke.

- **h5.coap** [morkai, 2014] Node.js-rako JavaScript liburutegia da. Bezeroak inplementatzeko bakarrik balio du eta RFC 7252-a jarraitzen du. Gainera, Observe mode eta Block-wise transfer gehigarriak ere inplementatuta dauzka.

- **node-coap** [mccollina, 2016] era JavaScripten idatzita dago eta Node.js-rako diseinatu da. h5.coap-ek ez bezala, honek bai bezero, baita zerbitzariak inplementatzeko balio du eta RFC 7252-ren bertsio iraunkorra jarraintzen du. RFC-az gain, Observe mode eta Block-wise transfer gehigarriak ere badauzka inplementatuta.

- **CoAPthon** [Tanganelli, 2016] Pythonentzako liburutegia da. Bezero eta zerbitzeriak inplementa daitezke eta RFC 7252-a jarraitzen du. Horrez gain, Observe mode, Core-Link format, Multicast eta Block-wise transfer gehigarriak ere inplementatzen ditu.

- **CoAPy** [CoAPy, 2010] ere Python liburutegi bat da, baina kasu honetan espezifikazioaren zirriborro zahar batean oinarrituta dago, draft-ietf-core-coap-02. Era honetan, teorikoki ez luke beste inplementazioekin interoperablea izan behar. Zirriborroaz gain, Block-wise transfer gehigarria ere inplementatzen du.

Aurretik esan bezala, CoAP inplementazio gehiago ere badaude, baina aurreko zerrendak ondo errepresentatu ditzake lengoaia eta exekuzio ingurune ezberdinak. Hala ere, merezi du beste batzuk ere aipatzea, arrazoi ezberdinengatik alde batera utzi direnak:

- **Copper** [Kovatsch, 2014] Firefox-erako plugin bat da, oso erabilgarria inplementatutako zerbitzariak frogatzeko. RFC 7252 jarraitzen du eta Resource Directory, Block-wise transfers eta Observe mode gehigarriak ere inplementatzen ditu, gizakiok ikusteko eran. Interoperabilitatea probatzeko erabili da, baina ez da neurririk hartu Copper-ekin.

- **Erbium** [ETH Zurich, 2014] C-n inplementatuta dago eta oso erabilia da, baina ContikiOS plataformarako orientatuta. Lan onetan Raspberry Pi-ekin lan egingo denez, alde batera utzi da.
- **TinyCoAP** [AleLudovici, 2013]-rekin Erbium-en gauza bera gertatzen da, oso erabilia da, C-n inplementatuta dago baina tinyOS-rako diseinatu da.

5. KAPITULUA

Inplementazioen analisia eta konparaketa teorikoa

Aurreko kapituluan CoAP protokoloa bera azaldu da eta hainbat ezaugarri aurkeztu dira. Kapitulu honetan liburutegien konparaketa teorikoa egingo da. Horretarako, inplementazioen ezaugarriak azalduko dira (lengoaia, non inplementatzeko diseinatu diren, dauzkaten gehigarriak...) eta ondoren zein erraztasun ematen duten zerbitzariak martxan jartzeko, hau da, zerbait berezia egin behar den eskaerak tratatzeko edo ez.

5.1 taulak analizatutako liburutegien ezaugarriak azaltzen ditu. Zein bertsio probatu den, zein plataformatan sartzeko diseinatu den, programazio lenguaia eta oharrak. Taulan azaltzen den bezala, lau C inplementazio daude, hainbat plataformatarako eta horrez gain, Java inplementazio bat, Javascripterako bi eta beste bi Pythonen. Taulako azkena, Copper, interoperabilitaterako soilik erabili da. Firefox-entzako plugin bat da, zerbitzariak probatzeko oso erabilgarria dena, era oso ikus-erraz batean zerbitzarien baliabideak ikusteko balio duena.

Bestalde, aipatzekoa da microcoap, RFC 7252 ofiziala jarraitu arren, ez du osorik inplementatzen eta ezaugarri batzuk faltan dauzka. GET, PUT eta POST eskaerak onartzen ditu, DELETE-ak ez. Gainera, ez du birtransmisiorik onartzen eta beti bueltatzen du ACK bat, nahiz eta eskaerak ez konfirmagarri bezala egin. Gainera, erantzuterakoan edukia beti ACK-n joango da, *piggibacking* deritzon tekina jarraituz.

CoAPy-ren kasua ere komentatzekoa da. Informazioa bilatzerako orduan toki askotan azaltzen da, baina proiektua alde batera utzi dute garatzaileek. Hala ere, lan honetarako kontuan eduki da, CoAP espezifikazio zahar bat jarraitzen duelako, eta bera, bertsio ezberdinen arteko komunikazioa aztertu ahal izateko.

Liburutegia	Bertsioa	Lengoaia	Plataforma	Oharrak
libcoap	Develop - 2016 Irailak 24	C	POSIX, Contiki, lwIP, TinyOS	-
smcp	Master - 2016 Irailak 24	C	Gailu txertatuak,bare-metal sentsoreak, Linux gailuak	-
microcoap	Master - 2016 Irailak 24	C	Arduino, POSIX	Zerbitzaria bakarrik, RFC-a partzialki
FreeCoAP	Master - 2016 Irailak 24	C	GNU/Linux	-
Californium	1.1.0-SNAPSHOT	Java	JVM	-
h5.coap	0.0.0	JavaScript	Node.js	Bezeroa bakarrik
node-coap	0.18.0	JavaScript	Node,js	-
CoAPthon	Master - 2016 Irailak 24	Python	Python	-
CoAPy	0.0.3-DEV	Python	Python	Abandonatua
Copper	1.0.0	GUI	Firefox	Bezeroa bakarrik, Firefox plugin-a

5.1 Taula: Inplementazioen laburpena

5.1 taulan ezaugarri teknikoagoak erakusten dira. Ikus daitekenez, liburutegi guztiek RFC7252-a jarraitzen dute, CoAPy-k izan ezik, 2. zirriborroa jarraitzen du. Gehienek bai bezeroak eta baita zerbitzariak ere inplementatzeko balio dute, baina ez denek. Copper bezero bat da, ez da liburutegi bat, h5.coap-ek bezeroak bakarrik inplementatzeko balio du eta microcoap-ek zerbitzarientzako soilik. Gehigarrien artean, nahiz eta gehienek esan ez, CoRE Link Format badaukate. Bestalde Obseve mode eta Block-wise transfer erabiltzeko gai dira gehienak, gehigarri oso erabilgarri eta gainera nahiko denbora daukatenak baitira. Liburutegi helduenek (libcoap eta Californium), gainera Resource Directory ere badaukate programatuta.

Eraginkortasunari dagokionez, C inplementazioek beharko lukete azkarrenak eta pisu gutxienekoak, teorikoki behintzat. C makina kodera konpilatzen delako da hori, hemen aztertutako beste lengoaiek beste kapa bat behar baitute sistema eragilearen gainean: Javak JVM behar du, Python-ek bere interpretatzailea eta JavaScripteko inplementaziek Node.js exekuzio ingurunea.

Aztertutako inplementazio guztiek, CoAPy-k izan ezik, esaten dute RFC 7252 jarraitzen dutela, beraz, elkarrekin ondo komunikatu beharko lukete, hau da, interoperableak izan beharko lukete. CoAPy-k draft-02 zirriborroa jarraitzen du, eta Path-Uri aukera aldatu egin da, lehen 9 kodea erabiltzen zuen eta draft-03-tik aurrera aukera hori hainbatetan banatu da. Gainera, ez du 9 kodea erabiltzen zati horietako batek ere ez, beraz ez dago konpatibilitaterik haien artean, 7.1 taulan ikus daitekeen bezala. Beste ezberdintasun bat da PUT-en erantzunak tratatzeko era. Lan honetan PUT-ei mezu batekin erantzun behar zaie eta erantzun egokiak 2.04 (Changed) kodea eduki beharko luke RFC 7252-a jarraituz,

baina draft-02-ak ez dauka kode hau. Kasu honetan, 2.01 (OK) kodea erabiltzea erabaki da, GET-entzakoa dena.

Bestalde, lan hau burutzean, CoAPThon-en arazo bat aurkitu da: ez du aukerarik PUT edo POST baten erantzunean edukirik sartzen [Github, 2016] 2.04 (Changed) kodea duen mezu batean. Hau horrela izanda, kontutan eduki behar da honen erantzuna byte bat txikiagoa izango dela, denbora eta eraginkortasuna irabaziz.

Liburutegia	Espezifikazioa	Bezero/Zerbitzari	Gehigarriak
libcoap	RFC7252	Bezero-Zerbitzari	Observe, Block-wise, Resource directory
smcp	RFC7252	Bezero-Zerbitzari	Observe, Multicast
microcoap	RFC7252	Zerbitzari	-
FreeCoAP	RFC7252	Bezero-Zerbitzari	-
Californium	RFC7252	Bezero-Zerbitzari	Observe, Blockwise. Resource Directory
h5.coap	RFC7252	Bezero	Observe, Block-wise
node-coap	RFC7252	Bezero-Zerbitzari	Observe, Block-wise
CoAPthon	RFC7252	Bezero-Zerbitzari	Observe, Core-Link, Multicast, Block-wise
CoAPy	Draft-2	Bezero-Zerbitzari	Block-wise
Copper	RFC7252	Bezero	Observe, Block-wise, Resource Discovery

5.2 Taula: Inplementazioen ezaugarriak

* Nahiz eta gehienek beren deskribapenetan esan ez, Core Link-Format gehigarria ere inplementatzen dute.

Inplementazio batzuek beste batzuek baino ibilbide luzeagoa daukate eta horrek berarekin dakar funtzionalitateetan ez ezik, baliabideen, erantzun kodeen eta eskaera moten kudeaketan eboluzio bat eduki izana. Hori dela eta, baliabideak sisteman sartu eta kudeatzeko erak ezberdinak dira liburutegi bakoitzean eta honek eragin zuzena dauka aplikazioen garapen prozesuan, liburutegi batzuk beste batzuk baino askoz errazagoak dira erabiltzeko, ondoren deskribatzen den bezala:

- **libcoap**: interfaze bat dauka, baliabide berriak aplikazioan sartzea asko errazten duena. Liburutegiak berak kudeatzen ditu erantzun kodeak, garatzaileek baliabidearen izena, zein eskaera mota eskaitzen dituen eta eskaera mota bere handlerrarekin lotu behar dute, interfazearen bidez.
- **smcp**: libcoap-en antzera, garatzaileak handlerrak eta baliabideak sortu eta interfaze baten bidez sartzen ditu aplikazioan. Liburutegia arduratzen da erantzun kodeak eta gainerakoak kudeatzeaz.
- **microcoap**: baliabideak zerbitzarian sartzeko, definitu egin behar dira eta gero array batean sartu, handlerrekin batera. Gainerakoa liburutegiak kudeatzen du.

- **FreeCoAP**: erantzun kodeak aplikazioen garatzaileek kudeatu behar dituzte eta baita baliabideen path-a ere, liburutegiak ez dauka interfazerik automatikoki egiteko. Baliabideak sartzea eta erantzun kodeak kudeatzeak lana dakar, FreeCoAP-ek ez du era sinplerik eskeintzen honetarako.

- **Californium**: inplementazio hau oso heldua da eta erraztasun handiak eskaintzen ditu baliabideak sartu eta kudeatzeko. Aplikazioan baliabide berri bat sartzeko, Java klase bat sortu behar da, eskaera bakoitzaren handlerrarekin. Gero, interfaze baten bidez gehitzen da sistemara eta liburutegia arduratzen da gainontzeko guztiaz.

- **node-coap**: baliabideen eta erantzun kodeen kudeaketa garatzaileen esku geratzen da. Liburutegi honek ez du interfazerik eskaintzen honekin baliabideen sorkuntza eta kudeaketarako, beraz aplikazioak berak egin behar du.

- **CoAPthon**: Python klase bat sortu behar da baliabide bakoitzeko, aplikazioan kontutan eduki nahi diren metodoekin. Liburutegia arduratzen da erantzun kodeetaz eta gainerakoaz.

- **CoAPy**: kasu honetan ere Python klase bat sortu behar da baliabide bakoitzerako, baina aplikazioak parseatu behar du path-a eta erantzun kodeak kudeatu, liburutegiak ez du eskeintzen gaitasun hori.

Laburbilduz, libcoap, smcp, microcoap, Californium eta CoAPthon dira erabiltzeko liburutegi errazenak. Erantzun kodeak kudeatzen dituzte eta garatzaileek baliabideak definitu eta handlerrak esleitu behar dituzte, liburutegiak arduratzen dira gainontzekoaz, era garden batean.

6. KAPITULUA

Experimentuaren deskribapena

Egungo industrian sare kabledunak erabiltzen dira gehien bat, adibidez Profibus, Modbus, CAN, Profinet, etab. Sare hauen desabantaila nagusia da ez direla oso dinamikoak, hau da, gailu berri bat sartzeko edo dagoen bat lekuz aldatzeko kablea bota behar da. Hori dela eta, beste aukera kablerik gabeko sareak erabiltzea, beren fidagarritasuna hobetzen ari baita. Dokumentu honetan aurkezten diren experimentuetarako 2 Raspberry Pi 3 erabili dira, WiFi bidez konektatuta.



6.1 Irudia: Gailuen arteko konexioa

Raspberry Pi plataforma oso erabilia da prototipo industrialetarako eta gainera, lan honetarako daukan abantaila garrantzitsuena da C-s gain, beste lengoaietako inplementazioak era probatzeko balio duela. Gailu mugatuagoetan inplementatuz gero, seguruenik Python,

Java eta JavaScript inplementazioak kanpoan geratu beharko liratete. Gainera, gateway-ak inplementatzerako orduan kontutan edukitzeko plataforma da Raspberry Pi-a. Kasu honetan, bezero eta zerbitzari bat behar izan dira, beraz 2 Raspberry-ak erabili dira. Zerbitzarian led bat jarri da eskuragarri baliabide bezala eta bezeroak pultsadore bat dauka. Pultsadorea sakatutakoan PUT eskaera bat bidaltzen du zerbitzarira, 0 edo 1 edukiarekin, eta eduki horren arabera zerbitzariak led-a piztu edo itzali egingo du.

Esan bezala, 9 inplementazio probatu dira haien artean eta 10. bat, Copper, elkarren arteko interoperabilitatea probatzeko. Liburutegien kodea ikutu gabe utzi da, bezero eta zerbitzariak bakarrik programatu dira, kodeek eskeintzen duten adibideetan oinarrituta. Salbuespen bakarra FreeCoAP izan da, IPv6 bakarrik onartzen baitu eta IPv4 ere onartzeko port-ing bat egin behar izan zaio, sortutako sarea IPv4 izan baita.

Probetan, interoperabilitatea eta eraginkortasuna neurtu dira. Interoperabilitatearen kasuan, konbinazio posible guztiak probatu dira, hau da, liburutegi bakoitzaren bezeroa liburutegi guztien zerbitzari konektatzen saiatu eta erantzuten duen edo ez ikusi. Eraginkortasuna neurtzerakoan Copper kanpoan utzi da eta konbinazio guztian probatu dira. Kontutan eduki behar da h5.coap-ek ez duela zerbitzaririk eta microcoap-ek bezerorik sortzen.

Eskaerei dagokienez, byte 1-eko edukia daukate, 1 edo 0-ko bat, led-a piztu edo itzaltzeko eskatzeko. Erantzunetan, aldiz, 7 edo 8 byte itzultzen dira, led-a itzalita edo piztuta dagoen esaten duen mezu bat da. Aztertu diren neurriak memoria (RAM eta ROM) eta CPU kontsumoa eta latentzia izan dira. ROM erabilerarako exekutagarrien eta liburutegien tamaina eduki dira kontutan, Californium-en kasuan izan ezik. Kasu honetan, Java inplementazio bat izanik, .jar fitxategia eduki da kontutan. RAM eta CPU kontsumoa Gnu/-Linux herramienta batekin neurtu da, *time*. Honek programa baten exekuzioari buruzko estatistikak erakusten ditu. Latentziarako, Round Trip Time (RTT)-a neurtu da. Eskakizuna bidali denetik, bueltan ACK jaso arteko denbora da RTT-a. Horretarako, *tcpdump* sare sniffer-a erabili da, sarean sortu diren pakete guztiak aztertzen dituena. 50 eskaera egin dira konbinazio guztiekin, segundu bat utziz eskaera bakoitzaren artean eta minimo, maximo, batazbestekoa eta mediana kalkulatu dira.

136	19.160598	192.168.1.105	192.168.1.103	CoAP	55	ACK, MID:37471, 2.05 Content (text/plain)
142	20.085344	192.168.1.103	192.168.1.105	CoAP	52	CON, MID:37472, PUT, /Led (text/plain)
147	20.098666	192.168.1.105	192.168.1.103	CoAP	56	ACK, MID:37472, 2.05 Content (text/plain)
150	21.085597	192.168.1.103	192.168.1.105	CoAP	52	CON, MID:37473, PUT, /Led (text/plain)
154	21.102892	192.168.1.105	192.168.1.103	CoAP	55	ACK, MID:37473, 2.05 Content (text/plain)
161	22.085833	192.168.1.103	192.168.1.105	CoAP	52	CON, MID:37474, PUT, /Led (text/plain)
168	22.105925	192.168.1.105	192.168.1.103	CoAP	56	ACK, MID:37474, 2.05 Content (text/plain)
172	23.086069	192.168.1.103	192.168.1.105	CoAP	52	CON, MID:37475, PUT, /Led (text/plain)
176	23.102247	192.168.1.105	192.168.1.103	CoAP	55	ACK, MID:37475, 2.05 Content (text/plain)
180	24.086282	192.168.1.103	192.168.1.105	CoAP	52	CON, MID:37476, PUT, /Led (text/plain)
184	24.098034	192.168.1.105	192.168.1.103	CoAP	56	ACK, MID:37476, 2.05 Content (text/plain)
188	25.086567	192.168.1.103	192.168.1.105	CoAP	52	CON, MID:37477, PUT, /Led (text/plain)
192	25.097275	192.168.1.105	192.168.1.103	CoAP	55	ACK, MID:37477, 2.05 Content (text/plain)
193	26.086832	192.168.1.103	192.168.1.105	CoAP	52	CON, MID:37478, PUT, /Led (text/plain)
201	26.092840	192.168.1.105	192.168.1.103	CoAP	56	ACK, MID:37478, 2.05 Content (text/plain)
204	27.087069	192.168.1.103	192.168.1.105	CoAP	52	CON, MID:37479, PUT, /Led (text/plain)
208	27.098280	192.168.1.105	192.168.1.103	CoAP	55	ACK, MID:37479, 2.05 Content (text/plain)
209	28.087300	192.168.1.103	192.168.1.105	CoAP	52	CON, MID:37480, PUT, /Led (text/plain)
213	28.098920	192.168.1.105	192.168.1.103	CoAP	56	ACK, MID:37480, 2.05 Content (text/plain)
217	29.087527	192.168.1.103	192.168.1.105	CoAP	52	CON, MID:37481, PUT, /Led (text/plain)
221	29.102699	192.168.1.105	192.168.1.103	CoAP	55	ACK, MID:37481, 2.05 Content (text/plain)
222	30.087818	192.168.1.103	192.168.1.105	CoAP	52	CON, MID:37482, PUT, /Led (text/plain)
226	30.098595	192.168.1.105	192.168.1.103	CoAP	56	ACK, MID:37482, 2.05 Content (text/plain)
227	31.088074	192.168.1.103	192.168.1.105	CoAP	52	CON, MID:37483, PUT, /Led (text/plain)
231	31.098638	192.168.1.105	192.168.1.103	CoAP	55	ACK, MID:37483, 2.05 Content (text/plain)
235	32.088324	192.168.1.103	192.168.1.105	CoAP	52	CON, MID:37484, PUT, /Led (text/plain)
242	32.111865	192.168.1.105	192.168.1.103	CoAP	56	ACK, MID:37484, 2.05 Content (text/plain)
245	33.088564	192.168.1.103	192.168.1.105	CoAP	52	CON, MID:37485, PUT, /Led (text/plain)
249	33.099199	192.168.1.105	192.168.1.103	CoAP	55	ACK, MID:37485, 2.05 Content (text/plain)
250	34.088769	192.168.1.103	192.168.1.105	CoAP	52	CON, MID:37486, PUT, /Led (text/plain)
254	34.102269	192.168.1.105	192.168.1.103	CoAP	56	ACK, MID:37486, 2.05 Content (text/plain)
255	35.089019	192.168.1.103	192.168.1.105	CoAP	52	CON, MID:37487, PUT, /Led (text/plain)
259	35.100373	192.168.1.105	192.168.1.103	CoAP	55	ACK, MID:37487, 2.05 Content (text/plain)
268	36.089251	192.168.1.103	192.168.1.105	CoAP	52	CON, MID:37488, PUT, /Led (text/plain)
272	36.111126	192.168.1.105	192.168.1.103	CoAP	56	ACK, MID:37488, 2.05 Content (text/plain)
277	37.089498	192.168.1.103	192.168.1.105	CoAP	52	CON, MID:37489, PUT, /Led (text/plain)

6.2 Irudia: Tcpdump-ek ateratako datuak

7. KAPITULUA

Emaitzak

Experimentua deskribatu ondoren, emaitzak erakusten dira kapitulu honetan. 4 kapituluan azaldu bezala, teorikoki CoAPy izan ezik beste liburutegi guztiek ondo funtzionatu beharko lukete haien artean. 7.1 taulan ageri dira interoperabilitatearen datuak, aurrikusitakoak dira. Horizontalean zerbitzariak ikusten dira eta bertikalean bezeroak. Test hau PUT eskaerak eginda eta led-a piztu edo itzali den ikusita egin da, ez da inongo sare analisirik egin.

	libcoap	smcp	microcoap	FreeCoAP	Californium	node-coap	CoAPthon	CoAPy
libcoap	+	+	+	+	+	+	+	–
smcp	+	+	+	+	+	+	+	–
FreeCoAP	+	+	+	+	+	+	+	–
Californium	+	+	+	+	+	+	+	–
h5.coap	+	+	+	+	+	+	+	–
node-coap	+	+	+	+	+	+	+	–
CoAPthon	+	+	+	+	+	+	+	–
CoAPy	–	–	–	–	–	–	–	+
Copper	+	+	+	+	+	+	+	–

7.1 Taula: Interoperabilitatea

Latentziari dagokionez, 7.2 taulak 50 eskaeren maximo (goian) eta minimoak (behean) erakusten ditu, konbinazio bakoitzerako. Neurriak milisegundutan daude eta dezimal batera borobildu dira. CoAPthon zerbitzaria eta h5.coap bezeroaren konbinazioak ez du guztiz ondo funtzionatzen. Birtransmisio asko gertatzen dira, CoAPthon-ek token bat sartzen duelako erantzunean, nahiz eta h5.coap-ek eskaeran sartu ez [Github, 2017]. Horrela, h5.coap-ek erantzuna jasotzean, token batekin jasotzen du, eta ez denez berak bidalitako eskaeraren berdina ACK baztertu eta birtransmisio bat egiten du, birtransmisio posible

maximora heldu arte. Hala ere, zerbitzariak led-a piztu edo itzali egiten du, arazoa bueltako ACK-n baitago eta ez eskaeran.

Orokorrean, ikus daiteke C inplementazioak azkarragoak direla zerbitzariaren aldean, FreeCoAP-en bezeroarekin izan ezik. Argiago ikusten da hau maximoetan, baina minimoetan ere ikus daiteke. Garrantzitsua da esatea Californium zerbitzariaren kasuan, lehenengo eskaera dela beti geldoena, tokenak kudeatu eta bezero bakoitza erregistratzen baitu, ondoren etorriko diren eskaerak azkarrago tratatzeko. Emaitza hauek logikoak dira, C lengoaia azkarragoa eta optimizatuagoa dela suposatzen delako. 4 kapituluan azaldu bezala, gainerako lengoaiek kapa gehigarri behar dute sistema eragilearen gainean.

	libcoap	smcp	microcoap	FreeCoAP	Californium	node-coap	CoAPthon	CoAPy
libcoap	16,1 4,0	40,8 2,6	223,4 6,7	33,5 3,0	75,6 6,0	109,6 7.0	104,3 10,4	- -
smcp	44,5 3,4	54,5 5,4	45,1 8,3	41,3 2,1	91,2 8,8	134,1 12,9	180,3 15,7	- -
FreeCoAP	226,3 6,8	124,1 5,4	551,6 8.0	37,6 3,2	87,1 5,1	100,8 12,6	113,8 12,4	- -
Californium	40,2 3,9	51,0 6,5	32,8 8,7	33,8 8,5	79.0 9,9	101,8 6,3	35,0 10,1	- -
h5.coap	24,3 3,1	12,7 5,6	14,0 4,5	18,1 5,6	94,4 7,6	107,5 7,6	- -	- -
node-coap	22,9 5,3	24,4 2,8	25,8 4,1	24,1 2,6	94,6 4.0	109,0 6.0	40,4 9,5	- -
CoAPthon	42,9 6,9	35,0 2,5	61,6 5,0	21,7 5,7	101.0 8.0	120.0 9,4	26,9 9,0	- -
CoAPy	- -	- -	- -	- -	- -	- -	- -	110,3 5,1

7.2 Taula: RTT Maximo eta minimoak, ms-tan

7.3 taulan 7.2 taulako eskaera berdinen batazbestekoa (goian) eta mediana (behean) erakusten dira. Milisegunduetan eta dezimal batera borobilduta, aurrekoan bezala. Datu hauek aztertzean, ondorioak berdinak dira, beraz ez du ematen zenbaki arraro batek datuak aldatu dituenik, koherenteak dira. Hala ere, espero ez den emaitza bat ageri da: h.coap, node-coap eta CoAPthon bezeroak azkarrak dira, ia C liburutegiak beste, nahiz eta Node.js eta Python inplementazioak izan.

	libcoap	smcp	microcoap	FreeCoAP	Californium	node-coap	CoAPthon	CoAPy
libcoap	5,5 5,0	9,5 5,3	22,2 13,9	12,5 10.0	17,3 11,4	19,8 13,9	23,2 19,4	- -
smcp	18,9 16,2	18,3 15,6	16,7 13,4	13,9 11,5	18,7 15,8	24,7 20,2	40,2 29,4	- -
